KALE ERASOAK. AABek gogor salatu dute

Gorenak berretsi egin du autobus bat erretzeagatik ezarritako zigorra

Basauriko lau gazteri hamazazpina urteko zigorra ezarri zien Entzutegi Nazionalak

Erredakzioa | DONOSTIA

Basaurin 1996an autobus bat erretzeagatik Entzutegi Nazionalak sei gazteri ezarri zien zigorra berretsi zuen atzo Auzitegi Gorenak. 2000eko ekainean Entzutegi Nazionalak Zigor Orbe, Iñigo Vallejo, Javi Sadaba eta Jon Lopezi 17na urteko espetxe zigorra ezarri zien autobus bat erretzeagatik eta zortzina urte eta erdikoa Leire Etxeberriari eta Maria Reyri ekintzan konplize izateagatik.

Auzitegi Gorenaren epaiaren arabera, lau mutilek erasoa gauzatu zuten eta bi neskek, abisua eman zieten besteei. Erasoan gidariaren bizitza arriskuan jarri zela argudiatzen da epaian, gidaria leihotik atera behar izan baitzuen.

«ETAko presoei babesa»

Epaia arrazoitzerakoan Auzitegi Gorenak dio «ETAko presoei babesa emateko xedearekin» jokatu zutela zigortuek. «Horrek bake publikoa larri asaldatzen du talde terrorista bateko kideen alde jarduten dutelako, nahiz eta talde horretako kide ez izan», gaineratzen du.

Defentsak «gazteak kidetasun ideologikoaz» jokatu zutela esan bazuen ere, Gorenak dio «kidetasun ideologiko» hori gidaria barruan zegoela autobusari su ematea izan zela.

Gazteak 15 eta 20 hilabete bitartean izan ziren kartzelan eta milioi bat pezetako bermea ordainduta kalera irten ziren. Entzutegi Nazionalaren epaiaren ondoren, epaitegi berak sei gazteak atxilotzeko agindu zuen. Egun Maria Rey eta Javi Sadaba daude kartzelan, lehena Alcalan eta bigarrena Valdemoron. Gazteek salatu zutenez, «eskubide guztiak urratuta lortutako deklarazioetan oinarrituta» zigortu zituzten. Gainera, euren abokatuek irregularitasunak salatu zituzten. Esaterako, atxiloketak ez zirela legezkoak izan eta ez zietela akusatuei Ertzaintzaren komisaldegian konfiantzazko abokatuarekin deklaratzen utzi.

Amnistiaren Aldeko Batzordeek gogor salatu zuten atzo epaia. «Argi dago euskal herritarrentzat ez dagoela justiziarik, hamazazpi urteko zigorra ezartzea izugarrikeria delako eta, are gehiago, ikusten ari garenean delitu askoz handiagoengatik batzuk kaleratzen dituztela, euskal gazteak espetxeratzen dituzten bitartean», esan zuten.

SALAKETA. Gatazka «bideratzeko» eskatu dute

AABk telefonoz jaso «heriotz mehatxuak» salatu ditu Iruñeko Guardia Epaitegian

Erredakzioa | IRUÑEA

Nafarroako Amnistiaren Aldeko Batzordeek (AAB) azken astean «telefonoz jaso heriotz mehatxuen» aurkako salaketa jarri zuten Iruñeko Guardia Epaitegian atzo goizean. Epaileari mehatxu horiek nondik datozen iker dezan eskatu diote AABek..

Taldeak igorri prentsa oharraren arabera, «mehatxuen atzetik» iragan astean eta Leitzako atentatuaren ondotik, hainbat politikarik ezker abertzalearen aurka esandakoak eta eskatu erantzukizunak daude.

«Egunotan ezker abertzalearen, AABren, edo Leitzako herritarren aurka esandakoak» gaitzetsi ditu elkarteak.

AABren aburuz, politikariak ez dira gatazka «moldatzeko gai, suari egur gehiago bota besterik ez dute egiten, eta ez dira irtenbide demokratikoaren alde ari».

LABURREAN


XOUSE SIMAL

Javier Balza eta Iñaki Azkuna, atzoko bileran.

Bilboko Udaltzaingoa eta Ertzaintzaren arteko elkarlanaren balantzea egin dute Balzak eta Azkunak

Bilboko Udaltzaingoa eta Ertzaintzako ordezkariek bilera izan zuten atzo bi erakundeen arteko elkarlanaren balantzea egiteko. Bilboko Udalean egin zen bilkuran, bi instituzioetako Segurtasun arduradunez gain, Bilboko alkate Iñaki Azkuna eta Eusko Jaurlaritzako Barne sailburu Javier Balzak ere hartu zuten parte. Bertan, herritarren segurtasuna hobetzeko neurriak martxan jartzea onartu zen. Horien artean, iaz egin zen bezala, Bilboko Aste Nagusian segurtasuna bermatzeko neurri bereziak hartzea ebatzi zuten.

PPko zinegotzi baten autoaren gainean animalia basati baten larrua ezarri dute

Alderdi Popularra kexu zen atzo, bere zinegotzi batek autoaren gainean orkatzaren larrua atzeman zuelako. Zinegotzia, Santiago Abascal da, eta Laudioko udaletxean zinegotzi izateaz gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Nuevas Generaciones gazte erakundeko lehendakaria da. Alderdi Popularrak, heriotz mehatxu bezala ulertu du ekintza.

Hernaniko udaletxeko enpresa batzordeak, eta AEK-k, lan eginen dute egun

Hernaniko hainbat gizarte eragile, Santiago Espainiako patroiaren egunez besta egiteari uko egin, eta lanerat joanen dira egun. Ekimena, udaletxeko enpresa batzordeak, AEK-k, dendari batzuk eta ikasle talde batek bultzatu du. Gudarien Enparantzan konzentrazioa ere eginen dute oren batean, *Gure jai egunak eta ez inposatutakoak* lelopean.

PPk eta PSOEk irailera arte gibelatu dituzte CGPJri buruzko negoziaketak

PP eta PSOEko bozeramaileek atzo goizean zuten azken parada organu konstituzionalen berritzeko. CGPJ, Kontuen Auzitegia eta Auzitegi Konstituzionala ziren berritzeko hiru organuak. Negoziaketek huts egin zuten eta irailera arte goaitatu beharko dute. EAJko Margarita Uria CGPJko kide izendatu edo ez izan da adostasunera heltzeko oztopo nagusia.

Mourenx-en agertu kamionetak ETAk erabiliak ote diren aztertzen ari dira

Okzitaniako Mourenx herrian joan den larunbatean atzemandako bi kamionetak ETAk erabiliak ote diren aztertzen ari direla adierazi zuen Santiago Lopez Valdivieso Goardia Zibileko zuzendari nagusiak atzo. Esan zuenez, litekeena da ETAk leherkariak garraiatzeko lapurtu izana, baina ikerketan ari dira oraindik.

Galiziako Aberri Egunean izango da gaur Batasunako ordezkaritza bat

Galiziako Aberri Eguna ospatuko da gaur Santiago egunean. Batasuna erakundeko ordezkaritza bat Santiagon izango da Galiziako talde independentziazaleek antolatutako ekitaldi politikoetan. Nós-Unidade Popular taldean bildutako erakundeek deitutako manifestazioan eta mitinean izango dira Batasunako kideak.

ETA

Azkoiti ETAko kide zela aitortu du erakunde armatuak agiri batean

Erredakzioa | DONOSTIA

Jose Luis Arrieta *Azkoiti* ETAko kide zela aitortu du erakunde armatuak EGUNKARIAra bidalitako agiri laburrean. Honela dio agiriak: «Euskadi Ta Askatasunak agiri honen bidez uztailaren 19an Okzitaniako Tolosa hirian gaisoaldi larri baten ondorioz hil zaigun Jose Luis Arrieta Zubimendi *Azkoitti* ETAren gudariaren heriotza dela eta bere senitarteko eta lagunei gure doluminik sentituenak helarazi nahi dizkie».

«*Azkoitti* burkideak hamarkada luzeotan erakutsitako grina, nahiz espetxean nahiz askatasunean, beti Euskal Herriaren independentzia eta sozialismoaren aldeko borrokan, ETAko kideontzat etsenplu eta eredu izanen da; eta ohoregarria ere eta duintasun sakonekoa *Azkoitti*-k bere gaisotasuna gora-behera ETAn borrokan jarraitzeko hartu zuen azken unerarteko erabakia».

LASA-ZABALA AUZIA

Julen Elgorriaga aske uztea «eskandalu politikoa» dela salatu du Batasunak

Erredakzioa | DONOSTIA

Joxean Lasa eta Joxi Zabala errefuxiatuak bahitu eta hiltzeagatik 71 urteko espetxe zigorra jaso ostean, Espainiako Entzutegi Nazionalak Julen Elgorriaga Gipuzkoako gobernadore zibil ohia aske uztea «eskandalu politikoa» dela salatu du Batasunak. Arnaldo Otegi Batasuneko Mahai Nazionaleko bozeramaileak esan du erabakiak ez dituela harritu, «lehen ere GALeko arduradun izandakoak aske uzteko lotsarik ez baitute izan estatu aparatuek».

Elgorriaga aske uzteak, Espainiako Estatuaren «izaera ez demokratikoa» agerian uzten duela erantsi du Otegik. Justizia aparatuen «bi aurpegiak» argi ikusi ahal izan direla esan zuen: «GALen arduradun bat kalera atera zen, 71 urteko zigorra izan arren, eta euskal borrokalari bat, Fermin Anzizar presoa, aske irten zen, baina zigorra oso-osorik beteta».

Bestalde, Entzutegi Nazionalak Madrilgo erkidegotik bere baimenik gabe irtetea debekatu dio Elgorriagari, eta epaitegira agertu beharko duela adierazi.